6. *Kontratistaren betekizun espezifikoak:*

a) Sailkapena:

A) Taldea, 1) Azpitaldea, C Maila.
E) Taldea, 1) Azpitaldea, D Maila.
G) Taldea, 6) Azpitaldea, C Maila.

b) Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa eta profesionala, hala badagokio: egiaztatutzat joko da sailkapena aurkeztuta eta eskatutako baliabide pertsonalak atxikitzeko konpromisoa hartuta.

c) Bestelako betekizun espezifikoak: lizitatzaileek konpromisoa hartu beharko dute obrako arduradun edo buru gisa Arkitekto Teknikoaren edo Obra Publikoetako Ingeniari Teknikoaren titulaziodun pertsona jartzeko, gutxienez lanaldi erdiko dedikazioan. Gainera hura identifikatzeko dagokion titulua bidali beharko dute dokumentuekin batera erantsita.

d) Erreserbatutako kontratuak: Ez.

7. *Parte hartzeko eskaintzen edo eskaeren aurkezpena:*

a) Aurkezteko azken eguna: lizitazio-iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita hogeita seigarren (26) egun naturaleko 13:30ak arte. Egun hau larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

b) Aurkezteko modalitatea:

c) Aurkezteko tokia:

1. Erakundea: Pliken Erregistroa.

2. Helbidea: Kurtzeko plaza 1.

3. Herria eta posta-kodea: 48960 Galdakao.

4. Helbide elektronikoa: jsantillana@galdakao.net

5. Fax zenbakia: 94.456.05.04.

d) Eskaintzak aurkeztera zenbat enpresa gonbidatuko diren, gutxi gorabehera (prozedura murriztua): Ez dagokio.

e) Aldaeren onarpena (hala badagokio): Ez dagokio, lizitatzaileek ondo iritzitako hobekuntzak aurkezteari kalterik egin gabe.

f) Lizitatzaileak eskaintzari nahitaez heldu behar dion epea: 3 hilabete.

8. *Eskaintzen irekiera.*

a) Helbidea: Kurtzeko Plaza 1.

b) Herria eta posta-kodea: Galdakao 48960.

c) Data eta ordua: A gutun-azalak Udalak erabakitako egunean irekiko dira. Lizitatzaileei jakinaraziko zaie B gutun-azalak noiz irekiko diren, ekitaldi publikoan.

9. *Publizitate gastuak:* Esleipendunaren kontura. Gutxi gorabeherako zenbatekoa: 150 euro.

10. *Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialari iragarkia bidaliko zaion eguna (hala badagokio):* Ez dagokio.

11. *Bestelako informazioak:* Ez dago.

Galdakaon, 2010eko abuztuaren 4an.—BB Alkatea

(II-6286)

6. *Requisitos específicos del contratista:*

a) Clasificación:

Grupo A), Subgrupo 1), Categoría C.
Grupo E), Subgrupo 1), Categoría D.
Grupo G), Subgrupo 6), Categoría C.

b) Solvencia económica y financiera y solvencia técnica y profesional, en su caso: Se entenderá acreditada con la clasificación y con el compromiso de adscripción de medios personales exigido.

c) Otros requisitos específicos: Los licitadores deberán comprometerse a adscribir un encargado/a-jefe de obra con titulación de Arquitecto/a Técnico o /Ingeniero/a Técnico/a de Obra Pública y con dedicación mínima de media jornada, identificándolo y adjuntando documentación acreditativa de dicha titulación.

d) Contratos reservados: No.

7. *Presentación de ofertas o de solicitudes de participación:*

a) Fecha límite de presentación: Hasta las 13:30 horas del vigesimosexto (26) día natural, contado desde el siguiente al de publicación del anuncio de licitación en el «Boletín Oficial de Bizkaia». Si este día fuera sábado o festivo se prorrogará hasta el día siguiente hábil.

b) Modalidad de presentación:

c) Lugar de presentación:

1. Dependencia: Registro de Plicas.

2. Domicilio: Kurtzeko Plaza 1.

3. Localidad y Código Postal: Galdakao 48960

4. Dirección electrónica: jsantillana@galdakao.net

5. Fax: 94.456.05.04.

d) Número previsto de empresas a las que se pretende invitar a presentar ofertas (procedimiento restringido): No procede.

e) Admisión de variantes (si procede): No procede, sin perjuicio de que se puedan presentar las mejoras que se estimen oportunas por los licitadores.

f) Plazo durante el cual el licitador estará obligado a mantener su oferta: 3 meses.

8. *Apertura de ofertas.*

a) Dirección: Kurtzeko Plaza, 1.

b) Localidad y Código Postal: Galdakao 48960,

c) Fecha y hora: La apertura de los sobres A se llevará a cabo en la fecha que determine el Ayuntamiento. Se comunicará a los licitadores el día y hora en que se realizará la apertura, en acto público, de los sobres B.

9. *Gastos de publicidad:* A cargo del adjudicatario. Importe aproximado: 150 euros.

10. *Fecha de envío del anuncio al «Diario Oficial de la Unión Europea» (en su caso):* No procede.

11. *Otras informaciones:* No.

En Galdakao, a 4 de agosto de 2010.—El Alcalde Acctal.

(II-6286)

•

## Portugaleteko Udala

IRAGARKIA

Portugaleteko Udalbatza Osoak 2010eko maiatzaren 27an egindako ohiko bilkuran besteak beste onetsi zuen hasierako onespena ematea Alkoholaren Publizitatea, Salmenta eta Kontsumoa Arautzeko Udal Ordenantza aldatzeari eta ordenantza 30 egunetan jendaurrean eta interesatuen eskura uztea, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko modua izan dezaten.

## Ayuntamiento de Portugalete

ANUNCIO

El Pleno del Ayuntamiento de Portugalete en sesión ordinaria celebrada el 27 de mayo de 2010 acordó aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza Municipal Reguladora de Publicidad, Venta y Consumo de Alcohol y someterla a información pública y audiencia a las personas interesadas por un plazo de 30 días para la presentación de sugerencias y reclamaciones.

cve: BAO-BOB-2010a153

Epe hori igarota, iradokizun-erreklamaziorik egin ez denez gero, ordenantzaren aldaketa behin betiko onetsi da.

Hona hemen aldatutako ordenantzaren testu osoa:

**ALKOHOLAREN PUBLIZITATEA, SALMENTA ETA KONTSUMOA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua**

Ordenantza hau ematerakoan, ondorengo legeriak Udalari emandako ahalmenak erabili dira: Toki-Erregimeneko Oinarriak Arautzeko Legea; Osasun Publikoari buruzko apirilaren 14ko Lege Organikoa; Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako 1984ko uztailaren 19ko Legea; Hiri Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa; Drogamenpekotasun Arloko Aurrezaintza, Sorospidetza eta Bergizarteratzeari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legea; eta, azkenik, Jendaurreko Ikuskizun eta Josteta Jarduerei buruzko azaroaren 10eko 4/1995 Legea.

**2. artikulua**

Ordenantzaren helburua Portugaleteko lurralde-eremuan alkohola behar ez bezala erabiltzea aurrezaintzea da, tokiko eskumenak erabiliz.

**3. artikulua**

Ordenantza honetako xedapenei kalterik egiteke, Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 11ko 15/1988 Legea, Drogamenpekotasun Arloko Aurrezaintza, Sorospidetza eta Bergizarteratzeari buruzkoa, eta 4/1995 Legea, Jendaurreko Ikuskizun eta Josteta Jarduerei buruzkoa, aplikatuko dira, eta lege horien garapenerako arauak ere bai.

I. KAPITULUA

**AURREZAINTZA-NEURRIAK**

**4. artikulua.—*Informazioa***

Udal administrazioak ahalik eta aholku eta orientabide zabalenak emango ditu alkoholaren kontsumotik datorren drogamenpekotasuna aurrezaindu eta tratatzeari buruz.

Alkoholaren gehiegizko kontsumoaren ondorioei buruzko informazio-kanpainiak egingo ditu, kontsumo horri buruzko ohiturak eta jarrerak aldatzeko asmoz; halaber, elkarrizketaldi, hitzaldi, ikastaro eta ihardunaldi monografikoak antolatuko ditu hirian.

Batez ere haurrak eta gazteak babestuko dira. Horregatik, informazio alorreko ekintzak sustatuko dira, haur-gazteei dagozkien aurrezaintza-helburuak lortzeko xedez.

**5. artikulua.—*Hezkuntza***

Udalak haur-gazteen osasunerako hezkuntza sustatuko du, irakaskuntza, osasungintza eta gizarte-zerbitzuen bidez eta gainontzeko Herri Administrazioekin batera lan eginez.

Gazteen elkarteak sustatuko ditu eta okupazio, aisia, kultura edo kirol egitarauetan parte har dezatela ere.

**6. artikulua.—*Herritarren lankidetza***

Herritar guztiek egitarau eta neurrietan parte har dezatela sustatuko da. Horretarako, Udalak informazioa, heziketa eta, behar izanez gero, dirulaguntza ere emango die horrelako xedea duten legez eratutako elkarteei.

Dado que, transcurrido tal plazo, no se han presentado sugerencias ni reclamaciones, la modificación de la ordenanza se entiende definitivamente aprobada.

El contenido íntegro de la ordenanza modificada será del siguiente tenor literal:

**ORDENANZA REGULADORA DE PUBLICIDAD, VENTA Y CONSUMO DE ALCOHOL**

DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1**

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las competencias atribuidas al Ayuntamiento por la Ley Reguladora de las bases del Régimen Local, la Ley Orgánica de 14 de abril de 1986, de la Salud Pública, la Ley de 19 de julio de 1984, para la Defensa de los Consumidores y Usuarios, la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana, la Ley de la CAPV sobre Prevención, Asistencia y Reinserción en materia de Drogodependencias y, finalmente, la Ley 4/1995, de 10 de noviembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

**Artículo 2**

La ordenanzaa tiene por objeto regular, en el marco de las competencias locales, la prevención del uso indebido de alcohol en el ámbito territorial de Portugalete.

**Artículo 3**

Sin perjuicio de las disposiciones contenidas en la presente Ordenanza, será de aplicación la Ley 15/1988, de 11 de noviembre, del Parlamento Vasco, sobre Prevención, Asistencia y Reinserción en materia de Drogodependencias y la Ley 4/1995 de Espectáculos y Actividades Recreativas, así como su normativa de desarrollo.

CAPÍTULO I

**MEDIDAS PREVENTIVAS**

**Artículo 4.—*Información***

La Administración Municipal facilitará el más amplio asesoramiento y orientación sobre la prevención y el tratamiento de las drogodependencias derivadas del consumo de alcohol.

Promoverá campañas informativas sobre los efectos de su uso abusivo, a fin de modificar hábitos y actitudes en relación a su consumo, así mismo, organizará charlas, conferencias, cursillos, y jornadas monográficas en la villa.

Los niños y jóvenes serán objeto de una protección especial; por ello se promoverán acciones en el campo de la información, tendentes al logro de los indicados fines preventivos en relación a dichos colectivos.

**Artículo 5.—*Educación***

El Ayuntamiento promoverá la educación para la salud de los niños y jóvenes, a través del personal educador, sanitario y de los servicios sociales, y en coordinación con el resto de las Administraciones Públicas.

Promocionará las asociaciones juveniles y su participación en programas de ocupación, ocio, culturales o deportivos.

**Artículo 6.—*Colaboración ciudadana***

Se promoverá la participación de todos los ciudadanos en los programas y medidas de actuación. Para ello prestará información, formación y, en su caso, ayudas económicas a las asociaciones legalmente constituidas que persigan dicha finalidad.

cve: BAO-BOB-2010a153

II. KAPITULUA

**ESKU HARTZEKO NEURRIAK**

**7. artikulua.—*Lizentziak***

Alkohola, bai kontsumo-tegietan bai saltegietan, saldu ahal izateko, instalazio edo irekierako lizentzia eduki beharko da, hori ezean ezin izango baita ihardunean hasi.

Instalazio edo irekierako lizentziak jaso ahal izateko, III. kapituluko mugapenak eta debekuak bete behar izango dira.

**8. artikulua.—*Ikuskaritza***

Udaltzaingoak, Udalaren Osasungintza-Ikuskaritzak eta, behar izanez gero, horretarako delegaturiko langileek izango dute ahalmena tegiak ikertu, ikuskatu, arakatu eta kontrolatzeko, ordenantza honek arautzen dituen mugapenak eta debekuak bete daitezen.

Lege-urratzea izan daitekeen edozer somatzen dutenean, horri buruzko salaketa-boletina edo akta egingo dute. Bertan zigor-prozeduraren oinarria izan daitezkeen zertzelada pertsonalak, datu eta egitateak adieraziko dituzte.

Jardueraren titularrek, gerenteek edo arduradunek une oro utzi beharko diete tegira sartzen ikuskaritza eta kontrolerako egiaztagiriak dakartzatenei. Halaber, laguntza ere eman beharko diete ikuskaketa egin dezaten. Hortaz, zigor daitekeen urratzea izango dira horri egitez edo ez-egitez oposatzea eta oztopoak jartzea.

III. KAPITULUA

**MUGAPENAK ETA DEBEKUAK**

**9. artikulua.—*Edari alkoholdunen sustapena eta publizitatea***

1. Debekaturik dago edari alkoholdunen kanpoaldeko publizitatea. Halakotzat joko da, irudi edo soinuen bidez, erabilpen orokorreko eremuetan edo tegi irekietan dabilen jendearen atentzioa erakartzen duen publizitatea.

2. Debekaturik dago edari alkoholdunak sustatzea etxeetara bidaltzen diren mezuen bidez, 18 urtetik gorakoen izenak adierazita bidaltzen ez badira.

3. Debekaturik dago edari alkoholdunen publizitatea honako tegi publikoetan:

a) Gehienbat 18 urtetik beherako bezeroei zuzendurik daudenetan.

b) Kiroldegietan, osasunetxeetan, ikastetxeetan eta horietarako sarpideetan.

c) Zinetoki eta ikuskizun-aretoetan, 18 urtetik gorakoei zuzenduriko emanaldietan izan ezik.

d) Garraio publikoetan.

4. Beren izena, hiztegia, grafismoa, aurkezteko modua edo besteren bat dela kausa, edari alkoholdunen zuzeneko edo estalpeko publizitatea egin dezaketen gauzen edo ekoizkien publizitatea ez da baimenduko.

**10. artikulua.—*Edari alkoholdunak hornitu eta saltzea***

1. Debekaturik dago edari alkoholdunak hornitu eta saltzea 18 urtetik beherakoei jendaurreko ikuskizun eta josteta ihardueretarako diren tegi edo instalazioetan.

2. Debekaturik dago edari alkoholdunak hornitu eta saltzea 18 urtetik beherakoei, saltzeko baimena duten merkataldegietan, hala nola supermerkatu, janaridenda eta, orohar, merkataldegi txikizkarietan.

3. Debekaturik dago edari alkoholdunak makinen bidez hornitu eta saltzea, baldin eta makina horiek tegi itxietan eta aurrean esandako debekuak betearazteaz arduratzen den pertsona baten

CAPÍTULO II

**MEDIDAS INTERVENTORAS**

**Artículo 7.—*De las licencias***

La venta de bebidas alcohólicas en lugares de consumo, como en los de simple expedición, requerirá la obtención previa de la oportuna licencia de instalación o de apertura, sin la cual no podrá comenzar a ejercerse la actividad.

Las licencias de apertura o instalación, estarán condicionadas al cumplimiento de las limitaciones o prohibiciones señaladas en el capítulo III.

**Artículo 8.—*De la actuación inspectora***

La Policía Municipal, así como la Inspección Sanitaria Municipal y , si es el caso, personal delegado asignado, estarán capacitados para investigar, inspeccionar, reconocer y controlar los locales a los efectos del cumplimiento de las limitaciones y prohibiciones reguladas en la presente Ordenanza.

Cuando aprecien algún hecho que estimen pueda constituir infracción, levantarán el correspondiente boletín de denuncia o acta, en el que harán constar circunstancias personales, datos y hechos que sirvan de base al correspondiente procedimiento sancionador.

Los titulares, gerentes o responsables de la actividad, vendrán obligados a permitir el libre acceso de las personas acreditadas para la inspección y control en cualquier momento así como a prestar la ayuda necesaria para la realización de la labor inspectora, constituyendo infracción sancionable la oposición activa o por omisión, o el mero entorpecimiento de dicha labor.

CAPÍTULO III

**LIMITACIONES Y PROHIBICIONES**

**Artículo 9.—*De la promoción y publicidad de bebidas alcohólicas***

1. Se prohíbe la publicidad exterior de bebidas alcohólicas, entendido por tal aquella publicidad susceptible de atraer, mediante la imagen o el sonido, la atención de las personas que permanezcan o discurran por ámbitos de utilización general o en lugares abiertos.

2. Se prohibe la promoción de bebidas alcohólicas a menores mediante mensajes que se envíen a domicilio, salvo que se dirijan nominalmente a mayores de 18 años.

3. Se prohibe la publicidad de bebidas alcohólicas en los siguientes locales públicos:

a) En los que estén dedicados a un público compuesto predominantemente por menores de 18 años.

b) En las instalaciones y centros deportivos, sanitarios y docentes, y sus accesos

c) En los cines y salas de espectáculos, salvo en sesiones dirigidas a mayores de 18 años.

d) En el interior de los transportes públicos.

4. No se permitirá la publicidad de objetos o productos que por su denominación, vocabulario, grafismo, modo de presentación o cualquier otra causa puedan derivar en publicidad indirecta o encubierta de bebidas alcohólicas.

**Artículo 10.—*Del suministro y venta de bebidas alcohólicas***

1. Se prohibe el suministro y venta de bebidas alcohólicas a menores de 18 años en locales e instalaciones destinados a espectáculos públicos y actividades recreativas .

2. Se prohibe el suministro y venta de bebidas alcohólicas a menores de 18 años en establecimientos comerciales autorizados por la expedición, tales como supermercados, ultramarinos y, en general, en el comercio minorista de alimentación.

3. Se prohibe el suministro y venta de bebidas alcohólicas a través de máquinas automáticas a no ser éstas se encuentren en establecimientos cerrados y a la vista de una persona encar-

cve: BAO-BOB-2010a153

aurrean ez badaude behintzat. Alkohola saltzeko makina automatiko horien aurreko azaleran oharra jarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan idatzia. Ohar horrek, inork kendu ez dezan, gutxienez 20 cm2-ko azalera beteko du eta esango du alkoholak kalte egiten diola osasunari.

4. Debekaturik dago edari alkoholdunak hornitu eta saltzea honako lekuetan:

— Lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan.

— Hamazortzi urtetik beherakoak nagusi diren tegi eta zentruetan.

— Osasunetxeetan.

— Kiroldegietan.

— Herribidean, horretarako baimenik ezean.

5. Saltoki guztietan kartel bana jarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan idatzia, debekuaren indarra gogorarazteko.

**11. artikulua.—*Tegietan sartu eta gelditzea***

Debekaturik dago 16 urtetik beherakoak sartu eta gelditzea edari alkoholdunak ematen dituzten tegi publiko itxietan, hots taberna, jai-areto, diskoteka, ikuskizun- edo jolas-aretoetan eta, orohar, alkohola saldu edo kontsumitzen den edozein leku edo tegitan, baldin eta adin txikiko horiekin batera gurasoak edo arduradunak ez badatoz. Horrelako tokietan kartel bana jarriko da, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan idatzia eta barrutik eta kanpoaldetik ikusgarria. Kartelek honela esango dute: «Debekaturik dago 16 urtetik beherakoak sartzea». Debeku hori kartel, foileto, egitarau eta propaganda-testu guztietan idatziko da.

**12. artikulua.—*Edari alkoholdunak kontsumitzea***

1. Debekaturik dago 18 urtetik beherakoek alkohola saltzeko makina automatikoak erabiltzea. Horren erantzulea makina dagoen tegiaren titularra izango da.

2. Debekaturik dago edari alkoholdunak herribidean kontsumitzea, baimenik ez badago behintzat.

3. Debekaturik dago edari alkoholdunak kontsumitzea jendaurreko ikuskizun eta josteta ihardueren tegien kanpoaldean, 22etatik aurrera.

Ordu horretatik aurrera, beraz, tegien titularrek ez diete utziko bezeroei edariak tegitik kanpora ateratzen.

**13. artikulua.—*Adina egiaztatzea***

Aurreko artikuluetakoa bete dadin, tegien titular, gerente, arduradun edo enplegatuek baimena dute bezeroei adina egiaztatzeko agiriak eskatzeko, horri buruz arrazoizko zalantzarik edukiz gero.

IV. KAPITULUA

**ESKUMENA**

**14. artikulua.—*Administrazioen arteko koordinazioa***

Udalak legeria sektorialeko iharduketen koordinazioa eta gizarte-ekimenaren partaidetza sustatuko du.

V. KAPITULUA

**LEGE-URRATZEAK ETA ZIGORRAK**

**15. artikulua.—*Lege-urratzeak***

1. Ordenantza honek ondorioak izan ditzan, bertan ezartzen diren debekuak, mugapenak edo beharrak ez betetzea lege-urratzea izango da.

gada de que se cumplan las prohibiciones anteriormente mencionadas. En la superficie frontal de las máquinas automáticas de alcohol figurará una advertencia, en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma, que ocupe una superficie no inferior a 20 centímetros cuadrados y de modo que impida su retirada, indicativa de que es perjudicial para la salud.

4. Se prohibe la venta y suministro de bebidas alcohólicas en los siguientes lugares:

— En los centros que impartan enseñanza primaria y secundaria.

— En los locales y centros destinados a un público compuesto predominantemente por menores de 18 años.

— En centros sanitarios.

— En las instalaciones deportivas

— En la vía pública, salvo autorización expresa.

5. En los puntos de venta se instalarán carteles en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma, que recuerden la vigencia de la prohibición.

**Artículo 11.—*De la entrada y permanencia***

Queda prohibida la entrada y permanencia de menores de 16 años en establecimientos públicos cerrados que sirvan bebidas alcohólicas tales como bares, salas de fiesta, discotecas, espectáculos o salas de recreo público y, en general, en cualesquiera lugares o establecimientos públicos en los que se venda o consuma alcohol, salvo que vayan acompañados de sus padres o personas responsables del menor. En esos lugares deberán figurar letreros, en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma, colocados en sitios visibles desde el exterior, así como en el interior, con la leyenda; «Prohibida la entrada a menores de 16 años». Esta prohibición deberá figurar impresa en carteles, folletos, programas y propaganda en general.

**Artículo 12.—*Del consumo de bebidas alcohólicas***

1. Se prohibe a los menores de 18 años el uso de máquinas automáticas de venta de alcohol, bajo la responsabilidad del titular del establecimiento.

2. Se prohibe el consumo de bebidas alcohólicas en vía pública, salvo autorización.

3. Queda prohibida la consumición de bebidas en el exterior de los locales de espectáculos públicos y actividades recreativas a partir de las 22:00.

A partir de la hora citada, los titulares de los locales impedirán que los clientes saquen las consumiciones fuera del local.

**Artículo 13.—*Acreditación de edad***

A los efectos establecidos en los artículos anteriores, los titulares, gerentes, responsables o empleados de los establecimientos, estarán autorizados a solicitar de sus clientes, los documentos acreditativos de su edad, cuando ésta les ofrezca dudas razonables.

CAPÍTULO IV

**COMPETENCIAS**

**Artículo 14.—*De la coordinación interadministrativa***

Desde el nivel municipal se promoverá la coordinación de las actuaciones contempladas en la legislación sectorial y la participación de la iniciativa social.

CAPÍTULO V

**INFRACCIONES Y SANCIONES**

**Artículo 15.—*Infracciones***

1. A los efectos de la presente Ordenanza se tipifican como infracciones el incumplimiento o inobservancia de las prohibiciones, limitaciones u obligaciones establecidas en ella.

cve: BAO-BOB-2010a153

2. Lege-urratzeak arinak, larriak edo oso larriak diren zehazteko, indarreko legeria aplikagarria erabiliko da.

a) Hona hemen lege-urratze arinak: 9.2, 10.2, 11 eta 12. artikuluetako mugapenak edo debekuak ez betetzea, eta ordenantza honen edozein urratze, jadanik larritzat edo oso larritzat sailkaturik ez badago.

b) Hona hemen lege-urratze larriak: 8. artikuluko 3. parrafoko beharra ez betetzea, 9.1 eta 10.1 artikuluetako mugapenak edo debekuak ez betetzea, eta urratze arin bat baino gehiago egitea.

c) Hona hemen lege-urratze oso larriak: ikuskaritza-zerbitzuei, lanean dihardutela, tegian sartzen behin baino gehiagotan ez uztea; tegi publikoen edo josteta ihardueren ikuskaritza galeraztea edo oztopatzea, eta urratze larri bat baino gehiago egitea.

**16. artikulua.—*Zigorrak***

1. Ordenantza hau urratzearen zigorrak, kasuan kasu, ohartarazpena, isuna, iharduera aldibatez ixtea edo tegia, denda edo enpresa ixtea.

2. Urratze oso larrien zigorrak hauexek izan daitezke (aukeran edo batera):

a) isuna

b) tegia ixtea, urtebete eta egun batetik hiru urtera bitarteko epe batez

3. Urratze larrien zigorrak hauexek izan daitezke (aukeran edo batera):

a) isuna

b) tegia gehienez urtebetez ixtea

4. Urratze arinen zigorra isuna izan daiteke, edo ohartarazpen soila, arduragabekeriaz egin badira eta osasun-arriskurik ez badakarte.

**17. artikulua—*Zigorrak ezartzea***

1. Zigorrak erabaki eta ezartzeko, kontuan hartu beharko dira urratzailearen errua eta administrazio-urratzearen gainontzeko zertzeladak ere bai, eta bereziki hurrengo hauek:

a) urratzeak gizartean duen ondorioa,

b) osasunerako arriskua,

c) urratzeko asmorik edo errepikatzerik ote dagoen,

d) legez kontra lortutako onura,

e) zigor-espedientea itxi aurretik eskatutako neurri konpongarriak hartu ote diren, eta

f) aringarri edo astungarri moduan, urratzearen erantzukizunmailan eragina izan dezakeen beste edozein.

**18. artikulua.—*Erantzuleak***

1. Erantzuleak izango dira, dolo, erru edo axolagabekeriagatik, ordenantza honetan tipifikaturiko egite edo ez-egiteen pean erortzen diren pertsona fisiko zein juridikoak, eta bereziki hauek:

a) Tegien, instalazioen edo horien lizentzieen titularrak.

b) Aurrekoen langileak edo beharrezko laguntzaileak.

2. Tegien edo horien lizentzien titularrak izango dira aurreko apartatuko b) letrako lagunek egiten dituzten urratzeen erantzuleak, urratzea aurrezaindu beharra betetzen ez dutenean, bidezkoak diren mendeaketei kalterik egiteke.

**19. artikulua.—*Organo eskudunak***

1. Eusko Jaurlaritzaren organoek, beren eskumenen eremuan dihardutelarik, daukaten zigortzeko eskumenari kalterik egiteke, ordenantza honen urratzeak Udalak zigortuko ditu.

2. La calificación de las infracciones como leves, graves o muy graves se realizará de conformidad con lo establecido en la legislación vigente que resulte de aplicación.

a) Son infracciones leves: los incumplimientos de las limitaciones o prohibiciones contempladas en los artículos 9º.2, 10º.2, 11º y 12º. Constituyen igualmente infracciones leves cualquier infracción de lo dispuesto en la presente ordenanza que no se encuentre ya tipificada como muy grave o grave.

b) Son infracciones graves, el incumplimiento de la obligación establecida en el artículo 8º, párrafo 3º y de las limitaciones o prohibiciones contempladas en el artículo 9º.1 y artículo 10º.1, así como la reincidencia en infracciones leves.

c) Son infracciones muy graves la negativa reiterada a permitir el acceso de los servicios de inspección durante el ejercicio de sus funciones o impedir u obstaculizar gravemente la inspección en establecimientos públicos y actividades recreativas, así como la reincidencia en infracciones graves.

**Artículo 16.—*De las sanciones***

1. Las infracciones a la presente Ordenanza serán sancionadas, en su caso, con apercibimiento, multa, cese temporal de la actividad o cierre del establecimiento, local o empresa.

2. Las infracciones muy graves podrán ser sancionadas, alternativa o acumulativamente con:

a) Multa

b) Clausura de local desde un año y un día hasta tres años.

3. Las infracciones graves podrán ser sancionadas, alternativa o acumulativamente, con:

a) Multa

b) Clausura del local hasta un año

4. Las infracciones leves podrán ser sancionadas con multa o simple apercibimiento cuando se hayan cometido por simple negligencia y no comporten un riesgo para la salud.

**Artículo 17.—De la determinación de sanciones**

Las sanciones se determinarán e impondrán teniendo en cuenta la culpabilidad del infractor y las demás circunstancias concurrentes al producirse la infracción administrativa, y especialmente las siguientes:

a) Repercusión social de la infracción.

b) Riesgo para la salud.

c) Existencia de intencionalidad, reiteración o reincidencia.

d) Beneficio ilícitamente obtenido.

e) Adopción de medidas reparatorias exigibles con anterioridad a la finalización del expediente sancionador.

f) Cualquier otra que pueda incidir en el grado de reprochabilidad de la infracción, en un sentido atenuante o agravante.

**Artículo 18.—*De los responsables***

1. Serán responsables las personas físicas o jurídicas que incurran a título de dolo, culpa o simple negligencia en las acciones u omisiones tipificadas en esta Ordenanza y en concreto:

a) Los titulares de los locales o instalaciones o de las respectivas licencias.

b) El personal y los colaboradores necesarios de los anteriores.

2. De las infracciones cometidas por los sujetos mencionados en la letra b) del apartado anterior responderán los titulares de los locales o de las respectivas licencias cuando incumplan el deber de prevenir la infracción, sin perjuicio de las acciones de resarcimiento que resulten procedentes.

**Artículo 19.—*De los órganos competentes***

1. Sin perjuicio de la competencia sancionadora de los órganos correspondientes del Gobierno Vasco en el ámbito de sus respectivas competencias, las infracciones a lo dispuesto en esta Ordenanza serán sancionada por el Ayuntamiento.

cve: BAO-BOB-2010a153

2. Alkatetza-Udalburutzak, indarreko legeriak ematen dizkion ahalmenak erabiliz, urratze arin eta larriak zigortzeko espedienteak ireki eta ebazteko eskumena izango du.

3. Baldin eta, espedientea tramitatzen den bitartean, izendaturiko instruktoreak iritziko balu zigortzeko eskumena ez dagokiola bera dagoen Administrazioari, eskumena dagokion Administrazioari bidaliko lizkioke iharduketak eta Administrazio horrek iharduketoi dauden prozedura-alditik aurrera emango die jarraipena.

**20. artikulua.—*Preskripzioa***

1. Urratze arinak sei hilabete igarota preskribitzen dira; larriak eta oso larriak, aldiz, zigortzen dituzten legeen arabera.

2. Urratzean preskribitzeko epea urratzea egiten den egunetik aurrera zenbatetsiko da.

**21. artikulua.—*Prozedura***

Ordenantza honetako urratzeak zigortzeko ireki eta ebazten diren espedienteek Administrazioen Jaurpide Juridikoari eta Administrazio-Jardunbide Arruntari buruzko, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen printzipioak bete beharko dituzte eta abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuak onesten duen Zigortzeko Boterea Erabiltzeko Prozedurari buruzko Arautegiko tramiteak izan beharko dituzte.

**22. artikulua.—*Behin-behineko neurriak***

Zigor-espedientea irekitzeko eskumeneko organoak edozein unetan erabaki ahal izango ditu, zio eta guzti, eman daitekeen azkeneko xedapenaren eraginkortasuna bermatzeko edo urratzearen ondorioek irautea ekiditeko beharrezko eta egokiak diren behin-behineko neurriak.

**23. artikulua.—*Zigorren zenbatekoa zertan erabili eta zigorrak nola ordeztu***

1. Alkohola herribidean hartzeagatiko zigorren diru-zenbatekoa osorik erabiliko da drogamenpekotasuna aurrezaintzeko udal progrmak finantzatzeko.

2. Zigor horiek eten egingo dira:

A) Baldin eta arau-hausleak onartzen badu Udalak ezartzen dituen komunitatearen onurako lanetan edo jardueretan aritzea.

B) Baldin eta Udalak ezartzen dituen ikastaro edo programetan parte hartzen badu.

**24. artikulua.—*Alkohola herribidean hartzeagatiko zigorrak eteteko jardunbidea***

1. Zigorra ezarri zuen agintaritzak berak dauka ahalmena zigorrak eteteko espedienteak hasi eta ebazteko eta etetea bukatzea erabakitzeko.

2. Horrelako jardunbideari ekingo zaio arau-hauslea ados agertzen bada zigortutako egitateekin eta idatziz eskatzen abdu komunitatearen aldeko lanetan edo jardueretan aditu nahi duela edo Udalak ezartzen dituen ikastaro edo programetan parte hartu nahi duela, aurreko artikuluarekin bat etorriz.

3. Zigorra etetea erabakiz gero, agintaritza ahalmendunak halaber etengo du zigorra iraungitzeko epea, kasuan kasuko lan, jarduera, ikastaro edo programak dirauen bitartean.

4. Zigorra etenik dagoen garaian, agintzaritza ahalmendunak zigortuek bete beharreko lanen emaitzen eta asistentziaren jarraipena egin ahal izango du.

5. Jasotako informaziotik ondorioztatzen denean arau-hausleak bere konpromisoa bete duela, agintzaritza ahalmendunak zigorraren barkamen partziala edo osoa erabakiko du.

2. Será órgano competente para la incoación y resolución de expedientes sancionadores por infracciones leves y graves, dentro de las facultades que la legislación vigente le atribuya, la Alcaldía-Presidencia.

3. Si durante la tramitación del expediente el instructor designado estimara que la competencia para sancionar no corresponde a la Administración a la que pertenece, remitirá las actuaciones a la que la ostente que, las continuará a partir de la fase procedimental en que se hallen.

**Artículo 20.—*De la prescripción***

1. Las infracciones leves prescriben a los seis meses, las graves y muy graves según lo dispuesto en las leyes de las que traen causa.

2. El plazo de prescripción de las infracciones comenzará a contarse el día en que la infracción se hubiera cometido.

**Artículo 21.—*Del procedimiento***

Los expedientes sancionadores que se incoen y resuelvan por infracciones previstas en esta Ordenanza respetarán los principios recogidos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, siguiendo los trámites previstos en el Reglamento del Procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora aprobado por Real Decreto 1398/1993, de 4 de agosto.

**Artículo 22.—*De las medidas provisionales***

El órgano competente para incoar el expediente sancionador podrá, en cualquier momento, acordar motivadamente las medidas cautelares necesarias y adecuadas para asegurar la eficacia de la resolución final que pudiera recaer o evitar el mantenimiento de los efectos de la infracción.

**Artículo 23.—*Destino y sustitución de sanciones***

1. El importe de las sanciones económicas obtenidas por consumir alcohol en la vía pública quedará afecto y deberá destinarse íntegramente a financiar programas municipales de prevención.

2. Las sanciones económicas impuestas por consumo de alcohol en la vía pública podrán ser suspendidas:

A) Si la persona infractora acepta acepta realizar los trabajos o actividades en beneficio de la comunidad que establezca el Ayuntamiento.

B) Si participa en los cursos o programas que determine el Ayuntamiento.

**Artículo 24.—*Procedimiento de suspensión de sanciones por consumo de alcohol en la vía pública***

1. La autoridad competente para incoar y resolver los expedientes de suspensión de las sanciones, así como para decidir la finalización de la suspensión, será la misma que impuso la sanción.

2. El procedimiento se incoará cuando la persona infractora, mediante la correspondiente solicitud, se muestre conforme con los hechos objeto de la sanción y manifieste su voluntad de realizar trabajos o actividades en beneficio de la comunidad o su participación en cursos o programas, de conformidad con lo establecido en el artículo anterior.

3. Si se resuelve favorablemente la suspensión, la autoridad competente declarará también suspendido el plazo de prescripción de la sanción, por el tiempo previsto de duración del trabajo, actividad, curso o programa.

4. Durante el tiempo de suspensión, la autoridad competente podrá efectuar el seguimiento que considere oportuno de las asistencias y resultados en las tareas correspondientes.

5. Cuando de la información reunida se deduzca que la persona infractora ha cumplido su compromiso, la autoridad competente acordará la remisión total o parcial de la sanción o sanciones impuestas.

cve: BAO-BOB-2010a153

6. Arau-hausleren batek herribidean alkohola edategatik ezarritako zigor bat betetzen ez badu edo beste arau-hauste bat egiten badu, agintaritza ahalmendunak aurrera eramango du espedientea.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehena:* Ordenantza hau indarrean hasten denean ebazteke dauden zigor-jardunbideetan 23. eta 24. artikuluetako ordezko neurriak erabili ahal izango dira.

*Bigarrena:* Alkoholaren Publizitatea, Salmenta eta Kontsumoa Arautzeko Udal Ordenantzako arauak eta aplikazio eremua Foru Administrazioak, Euskal Autonomiako Administrazioak, Estatuko Administrazioak edo Europar Batasunak ezartzen dituzten goragoko arauek agindu bezala aldatuko dira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehena:* Portugaleteko Alkatetza-Udalburutzak ahalmena du Alkoholaren Publizitatea, Salmenta eta Kontsumoa Arautzeko Udal Ordenantza hau egoki interpretatu eta erabiltzeko behar diren jarraibide guztiak ezartzeko.

*Segunda:* Ordenantza bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera hasiko da indarrean.

Portugalete, 2010eko uztailaren 15a. Alkate-udalburua, Mikel Torres Lorenzo

(II-6246)

6. El incumplimiento total o parcial y la comisión de una nueva infracción por consumir alcohol en la vía pública determinarán que la autoridad competente resuelva la continuación del expediente de ejecución de la sanción.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera*: Los procedimientos sancionadores pendientes de resolución a la entrada en vigor de esta ordenanza podrán acogerse a las medidas alternativas que incorporan los artículos 23 y 24.

*Segunda*: Las regulaciones contenidas en la Ordenanza Reguladora de Publicidad, Venta y Consumo de Alcohol se modificarán tanto en sus disposiciones reguladoras como en su ámbito de aplicación, en el mismo sentidoque establezcan normas de superior jerarquía dictadas en el ejercicio de sus competencias por la Administración Foral, la Administración Autonómica Vasca, la Administración Estatal o la Unión Europea.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera:* La Alcaldía-Presidencia del Ayuntamiento de Portugalete queda facultada para dictar cuantas instrucciones resulten precisas para la adecuada interpretación y aplicación de la Ordenanza Reguladora de Publicidad, Venta y Consumo de Alcohol.

*Segunda:* La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días de la publicación íntegra de su texto definitivo en el Boletín Oficial de Bizkaia.

En Portugalete, a 15 de julio de 2010.—El Alcalde-Presidente, Mikel Torres Lorenzo

(II-6246)

•

## Abanto-Zierbenako Udala

IRAGARPENA

Tokiko Gobernu Batzordeak, 2010eko uztailaren 27an egindako ez ohiko 2/10 bilkuran, onartu egin zuen hiriguneetan ingurumena eta paisaia berreskuratzeko obren kontratua esleitzeko administrazio baldintza zehatzen agiria.

*Entitate esleitzailea*

— Abanto-Zierbenako Udala.
— Dokumentazioa eta informazioa: Kontratugilearen profila.
— Espediente zenbakia: OS-043-10.

*Kontratuaren objetua*

a) Mota: Obrak.
b) Deskribapena: hiriguneetan ingurumena eta paisaia berreskuratzeko obrak.
c) Loteak: Ez.
d) Obrak amaitzeko epea: 3 hilabete.

*Izapideak eta jardunbidea*

a) Izapideak: Ohikoa.
b) Jardunbidea: Irekia.
c) Enkante elektronikoa: Ez.
d) Esleitzeko irizpideak: Formularen araberako irizpide zenbakarriak (hirurogei puntu arte).

— Eskaintza ekonomikoa: (Berrogeita bost puntu arte). Gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintza ekonomikorik merkeenari eta, beste eskaintzei honako formula hau aplikatuta ateratzen denari: Eskaintza ekonomiko baxuenaren eta baloratuko den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiketaren emaitza eta irizpideari aplikatu ahal zaizkion puntu guztiak biderkatzearen ondorioz sortzen dena. Hau da, Em*50 /Le.
Em eskaintza ekonomikorik merkeena da.
Le baloratuko den lizitatzailearen eskaintza da.
— Epea: (Hamabost puntu arte). Gehieneko puntuazioa emango zaio obrak hilabete (30 egun) azkarrago amaitzea

•

## Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana

ANUNCIO

La Junta de Gobierno Local, en sesión extraordinaria número 2/10 de fecha 27 de julio de 2010, aprobó el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares para la adjudicación del contrato de la obra de recuperación medioambiental y paisajística de entornos urbanos.

*Entidad adjudicataria*

— Ayuntamiento de Abanto y Ciérvana.
— Obtención de documentación e información: Perfil del Contratante.
— Numero de expediente: OS-043-10.

*Objeto del contrato*

a) Tipo: Obras.
b) Descripción: Obras de recuperación medioambiental y paisajística de entornos urbanos.
c) División por lotes: No hay.
d) Plazo de ejecución: 3 meses.

*Tramitación y procedimiento*

a) Tramitación: Ordinario.
b) Procedimiento: Abierto.
c) Subasta electrónica: No.
d) Criterios adjudicación: Criterios cuantificables por formulas (hasta sesenta puntos).

— Oferta económica: (Hasta cuarenta y cinco puntos). Se otorgará la máxima puntuación a la oferta más económica y al resto de ofertas la que se desprenda de la fórmula de multiplicar el resultado del cociente entre la oferta económica más baja y la oferta del o la licitadora que se valora, por el número total de puntos aplicables al criterio. Esto es, Ob*50 /Ol.
Donde Ob es la oferta económica más baja.
Donde Ol es la oferta del o la licitadora que se valorar.
— Plazo: (Hasta quince puntos). Se otorgará la puntuación máxima a la oferta que rebaje en 1 mes (30 días) el plazo

cve: BAO-BOB-2010a153